4255

1723/2008 EBAZPENA, ekainaren 25ekoa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, hutsik geratu diren destinoak txanda ireki bidez esleitzeko agindua ematen duena osasun teknikari espezialisten lanbide taldeko Dietetikako teknikari espezialisten kategorian. Aipatutako kategoriak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko osasun zerbitzuetako erakundeak ditu destino.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 4ko 1082/2006 Ebazpenaren bidez onartu ziren Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautatze probak arautuko dituzten oinarri orokorrak. Oinarri orokor horiek 2006ko urriaren 24ko EHAAn, 203. zenbakikoan, argitaratu ziren.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 4ko 1101/2006 Ebazpenaren bidez, osasun teknikari espezialisten lanbide taldeko Dietetikako teknikari espezialisten kategorian lotura estatutarioa lortzeko hautatze probetarako deialdia egin zen. Horien destinoak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko osasun zerbitzuetako erakundeak ziren eta 2006ko urriaren 24ko EHAAn, 203. zenbakikoan, argitaratu zen.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren apirilaren 21Eko 400/2008 Ebazpenaren bidez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian oposizioaldia txanda ireki bidez gainditu duten izangaien behin betiko zerrenda amaierako puntuazio ordenaren arabera argitaratzeko agindu zen. Zerrenda hori Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko osasun zerbitzuetako erakundeak destino dituzten osasun teknikari espezialisten lanbide taldeko Dietetikako teknikari espezialisten kategorian lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa probak gainditu dituztenena da.

Hautaketa prozesua arautzen duten oinarri orokorretako 10.9.7 atalean aurrez ikusitakoa betez, txanda bakoitzari dagozkion destinoak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren Ebazpenaren bidez esleituko dira eta Ebazpen hori EHAAn argitaratuko da.

Azaldutako guztiaren arabera eta indarrean dagoen legerian pertsonalaren arloan esleitutako ahalmenak erabiliz, hau

EBATZI DUT:

***Lehenengoa.***– Osasun teknikari espezialisten lanbide taldeko Dietetikako teknikari espezialisten kategorian txanda ireki bidez hutsik geratu diren destinoak esleitzea Ebazpen honekin batera agertzen den eranskinaren bidez. Aipatutako kategoriak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko osasun zerbitzuetako erakundeak ditu destino.

4255

RESOLUCIÓN 1723/2008, 25 de junio de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se procede a la adjudicación de los destinos vacantes por el turno libre en la categoría de Técnico Especialista Dietética del Grupo Profesional de Técnicos Especialistas Sanitarios con destino en las organizaciones de servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Mediante Resolución 1082/2006, de 4 de octubre, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se aprobaron las bases generales que han de regir los procesos selectivos para la adquisición del vínculo estatutario fijo en Osakidetza-Servicio vasco de salud, publicándose en el BOPV n.º 203, de 24 de octubre de 2006.

Mediante Resolución 1101/2006, de 4 de octubre, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se convocaron pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de Técnico Especialista Dietética del Grupo Profesional de Técnicos Especialistas Sanitarios con destino en las organizaciones de servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud publicándose en el BOPV n.º 203, de 24 de octubre de 2006.

Mediante Resolución 400/2008, de 21 de abril, del Director de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se ordenó la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la relación definitiva de aspirantes por el turno libre que han superado la fase de oposición, por el orden de su puntuación final, de las pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de Técnico Especialista Dietética del Grupo Profesional de Técnicos Especialistas Sanitarios con destino en las organizaciones de servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Conforme a lo previsto en el apartado 10.9.7 de las bases generales que rigen el proceso selectivo, los destinos correspondientes a cada turno serán adjudicados mediante Resolución de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, la cual será publicada en el BOPV.

Por todo lo expuesto, y en uso de las facultades en materia de personal atribuidas por la legislación vigente,

RESUELVO:

***Primero.***– Adjudicar los destinos vacantes por el turno libre en la categoría de Técnico Especialista Dietética del Grupo Profesional de Técnicos Especialistas Sanitarios, con destino en las organizaciones de servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud, mediante anexo que se acompaña a la presente Resolución.

***Bigarrena.***– Destinoa lortu dutenek hilabeteko epea izango dute lanpostuaz jabetzeko, Esleipenaren ebazpena EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Lehiatzaileak Osakidetzako Zuzendaritza Nagusian jabetuko dira destinoez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Erakunde Zentralean. Horretarako, izangaiek aldez aurretik hitzordua eskatu beharko dute eta ekitaldi horretan agiri hauek aurkeztu:

– NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren kopia konpultsatua edo dokumentu baliokidearena Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko kide den beste estaturen bateko nazionalentzat, edo Europar Batasuneko Itunaren arabera edo Espainiak berretsitako beste hitzarmen batzuen babesean edo eskubide hori lege arau baten bidez emanda, langileak estatu batetik beste batera libre ibiltzeko eskubidea aplikatzen zaien estatuetako nazionalentzat. Dagokionean, 3. paragrafoko 6.2.a) oinarrian agertzen den dokumentazioaren kopia konpultsatua ere aurkeztu beharko da.

– Elkargoko kide izatearen egiaztagiria, deialdiko oinarri espezifikoetan hala eskatzen denean.

– Zinpeko aitorpena edo agindua, izangaia administrazio publikoetako zerbitzuetatik ez dagoela kanporatuta adierazteko, ezta eginkizun publikoetarako gaitasungabetuta ere.

– Destinoa normal betetzeko beharrezkoa den gaitasun psikofisikoa egiaztatzen duen Osakidetzako-Euskal Osasun Zerbitzuko Prebentzio Zerbitzuak emandako errekonozimendu medikoa.

– Izangai ezinduen azterketa medikoak egiaztatu beharko du baduela esleitutako destinoari dagozkion eginkizunak betetzeko beharrezko gaitasuna eta, orobat, behar izanez gero, destinoan egin beharreko egokitzapenen berri ere emango du.

Emandako epe horretan aipatutako agiriekin bertaratzen ez direnak edo agiri horiek aztertuta antzematen bada 6.2. oinarrian jasotako betebeharren bat ez dutela betetzen, ezingo dira jabetu esleitu zaien langile estatutarioaren destinoaz. Ondorioz, deuseztatuta geldituko dira beren jarduerak, eta hori ez da eragozpena izango hasierako eskabidean faltsukeriaren bat jartzeagatik izan dezaketen erantzukizuna eskatzeko.

Era berean, interesdunei gogorarazten zaie, epe barruan edo, hala dagokionean epe luzatuan, destinoaz jabetzen ez badira, hautatze probetatik eratorritako eskubideak galduko dituztela.

Lehenago ezarri bezala, destinoaz jabetzen diren izangaiak eginbide hori bete eta hurrengo egunean hasiko dira lanean, dagokien zerbitzu sanitarioetako erakundean.

***Hirugarrena.***– Hautaketa prozesua arautzen duten oinarri orokorretako 14. atalean zehaztutakoaren ara-

***Segundo.***– Los adjudicatarios dispondrán para la toma de posesión del destino correspondiente del plazo de un mes a partir del día siguiente a la publicación de la Resolución de adjudicación en el BOPV.

La toma de posesión deberá efectuarse en la Dirección General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, con domicilio en la Sede Central del mismo, previa petición de cita por parte del aspirante, debiendo aportar en el acto la siguiente documentación:

– Fotocopia compulsada del DNI, pasaporte o permiso de conducir o documento equivalente para los nacionales de otros estados miembro de la Unión Europea o del Espacio Económico Europeo o de los estados a los que, en virtud del Tratado de la Unión Europea, de otros tratados ratificados por España o de norma legal, les sea aplicable la libre circulación de trabajadores así como, en su caso, fotocopia compulsada de la documentación a que se hace referencia en la base 6.2.a) párrafo 3.

– Certificado de Colegiación, cuando se requiera en las bases específicas de la convocatoria.

– Declaración jurada o promesa de no haber sido separado del servicio de ninguna Administración Pública, mediante expediente disciplinario, ni hallarse inhabilitado para el ejercicio de funciones públicas.

– Reconocimiento médico que acredite la aptitud psicofísica precisa para el normal desempeño del destino, emitido por el Servicio de Prevención de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

– El reconocimiento médico de los aspirantes que tengan la condición de discapacitados, deberá acreditar que el aspirante reúne la aptitud necesaria para el desempeño de las funciones del destino objeto de adjudicación, haciendo constar, en su caso, las adaptaciones del puesto de trabajo que sean necesarias.

Quienes, dentro del plazo fijado, no comparecieran provistos de la documentación mencionada o, del examen de la misma, se dedujera que carecen de alguno de los requisitos señalados en la base 6.2, no podrán tomar posesión del destino como personal estatutario que se les hubiere adjudicado y quedarán anuladas sus actuaciones, sin perjuicio de la responsabilidad en que hubieren incurrido por falsedad en la solicitud inicial.

Del mismo modo, se apercibe a los interesados que la no comparecencia a la toma de posesión, dentro del plazo o, en su caso, de su prórroga, significará la pérdida de los derechos derivados de la resolución de las pruebas selectivas.

Aquellos aspirantes que, con arreglo a lo anteriormente expuesto, efectúen la toma de posesión habrán de incorporarse a la organización de servicios sanitarios que proceda al día siguiente al de la cumplimentación de la correspondiente diligencia.

***Tercero.***– Al amparo de lo establecido en el apartado 14 de de las bases generales que rigen el proceso selec-

bera, Ebazpen honen aurkako gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko da Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Administrazio Batzordearen aurrean, EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko ekainaren 25a.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusia,
GLORIA QUESADA MENÉNDEZ.

tivo, contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 25 de junio de 2008.

La Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud,
GLORIA QUESADA MENÉNDEZ.

ERANSKINA / *ANEXO*

KATEGORIA: DIETETIKAKO TEKNIKARIA
*CATEGORÍA: TÉCNICO DIETÉTICA*

LANPOSTU FUNTZIONALA: DIETETIKAKO TEKNIKARIA
*PUESTO FUNCIONAL: TÉCNICO DIETÉTICA*

DESTINOEN ESLEIPENA - IREKIA
*ADJUDICACIÓN DE DESTINOS-LIBRE*

| NAN<br>*DNI* | Izen-Abizenak<br>*Nombre y Apellidos* | Zerbitzuetako Erakundea<br>*Organización de Servicios* | Destinoa<br>*Destino* | HE<br>*PL* | Derrig. Data<br>*Fecha Precep.* |
|---|---|---|---|---|---|
| 30655067 | Errekalde Linaza, Iratxe | Gurutzetako Ospitalea<br>*Hospital Cruces* | Gurutzetako Ospitalea<br>*Hospital Cruces* | 2 | |
| 12745108 | Gutiérrez Guerra, M ª Teresa | Txagorritxu Ospitalea<br>*Hospital Txagorritxu* | Txagorritxuko Ospitalea<br>*Hospital Txagorritxu* | 2 | |

# Oposaketak eta Lehiaketak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

**4256**

EBAZPENA, 2008ko ekainaren 30ekoa, Lehendakaritzaren idazkari nagusiarena, sail honetan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko dei publikoa egiteko dena.

Kanpo Harremanetarako Zuzendaritzan hutsik dago goi-kargudunaren idazkari lanpostua. Lanpostuaren Kodea 520010, eta 162 dotazio zenbakia. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 46.2.c) artikuluan xedatutakoaren arabera (1989ko uz-

# Oposiciones y Concursos

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

**4256**

RESOLUCIÓN de 30 de junio de 2008, del Secretario General de la Presidencia, por la que se anuncia la convocatoria pública para la provisión, por el sistema de libre designación, de un puesto de trabajo vacante en este Departamento.

Estando vacante un puesto de Secretario/a de Alto Cargo, código 520010, dotación 162, en la Dirección de Relaciones Exteriores, conforme a lo dispuesto en el artículo 46.2.c) de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca (BOPV de 28 de julio de 1989)